

## UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK SIMULOG: KATE LOGISTIKO INTEGRALAREN SIMULAZIO DIGITALA (2. ED.)

### INFORMAZIO OROKORRA

---

**IKASTURTEA:** 2024/2025

**ARLOA:** IKASKETA TEKNIKOAK

**KREDITUAK:** 15 ECTS (\*) kreditu

**MATRIKULA TASA:** 30 € (Asegurua 4,00 €)

**ARDURADUN AKADEMIKOA:** Rosa María Rio Belver

### AURKEZPENA

---

Sartu simulazio digitalaren mundu liluragarrian "SIMULOG: Kate Logistiko Integralaren Simulazio Digitala"-rekin.

Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen graduondoko proposamen berritzaile honek teoria eta praktika uztartzen ditu, logistikan, garraioan eta BusinessAnalytics-en prestakuntza integrala eskainiz. Etorkizunean logistikaren buru izango diren pertsonentzat diseinatuta, ikastaro honek sektorearen benetako erronkei aurre egiteko eta konpontzeko beharrezkoak diren tresnekin eta ezagutzarekin kontaktuan jarriko zaitu.

Ikastaroak 6 modulu nagusi ditu (100 ordu), simulazioan eta BusinessAnalytics-en oinarri teoriko sendoa eta trebetasun praktikoa lortzeko diseinatuak.

- Logistika integrala:** modelatze logistikoa eta tresna digitalen bidezko etengabe hobekuntza.
- Banaketa-logistika:** Hornidura-katearen kudeaketa praktikoa eta bezeroekiko harremana.
- Nazioarteko garraioa:** Nazioarteko esparruetan (garraio motak, izapideak, aduanak...) inport-exportoperatiba eta dauden tresna teknologikoak ezagutaraztea.
- Garraioaren, mugikortasunaren eta logistikaren simulazioa:** Simulazioa enpresa-optimizaziorako tresna indartsuenetako bat da, errealitatean zenbait alderdi imitatzen dituen eredu batekin esperimendatzea ahalbidetzen diguna. Bloke handi honen helburua garraioaren, mugikortasunaren, logistikaren eta lotutako azpiegituren simulazioa ahalbidetuko duten kontzeptu orokorrak ikastea izango da.
- Businessanalytics logistikan:** Ikerketa eta garapena logistikan. Aurrerapen teknologikoak monitorizatzeko sistema bat diseinatzea eta implementatzea, negozio-adimenean eta datuen analisisian tresna aurreratuenekin.

6. **Garraioaren iraunkortasuna, mugikortasuna eta logistika. Azken proiektua** (50 ordu): Parte-hartzaileek simulazio proiektu bat garatuko dute enpresen arazo errealak konpontzeko. Enpresetara 5 bisita egingo dira eta arloko adituen 7 ponentzian parte hartuko da.

## ZURE BILA GABILTZA

---

Adimen jakinguratsuen bila gabilta baita logistikak liluratutako pertsonen bila ere. Simulazio digitalean sakondu nahi baduzu, kate logistikoaren maila bakoitza ulertu eta optimizatu nahi baduzu, eta aro digitalaren aldaketa gidatu nahi baduzu, ikasturte hau zuretzat izango da. Bat egin gurekin, eta logistikan berrikuntza eta bikaintasuna lantzen dituen komunitate bateko kide bihurtuko zara.

## IRTEERA PROFESIONALAK

---

Industria logistikoa etengabe ari da eboluzionatzen, eta horrekin batera, profesional gaituen eskaria ez da inoiz hain handia izan. "SIMULOG" amaitzen duzunean, ondo baino hobeto kokatuta egongo zara kudeaketa logistikoan, simulazio digitalean, garraio-aholkularitzan, irtenbide jasangarrien diseinuan eta askoz ere gehiagotan nabarmendutako roletarako.

Gure konpromisoa da edozein ingurune profesional logistikotan aurrera egiteko trebetasunak eta konfiantza ematea.

## BALDINTZAK

---

Izangaiek Batxilergoko ikasketak edo baliokideak amaituta eduki behar dituzte, eta hori funtsezkoa da programaren edukiei heltzeko beharrezkoak diren oinarriko ezagutzak dituztela bermatzeko. Funtsezkoa da jarrera proaktiboa, ikasteko nahia eta lidergo-ambizioa izatea logistika-sektorean. Irizpide hauek betetzen badituzu eta zure karrera aldatzeko prest bazaude, zure izen-ematearen zain gaude!

## IRAKASKUNTZA

---

**HASIERA ETA AMAIERA DATA:** 2024/10/3tik 2024/12/16ra

**EMATEKO TOKIA:** Presentziala: Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola

**HIZKUNTZA:** Gaztelaniaz



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO  
PRESTAKUNTZAREN ARLOKO  
ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO DE POSGRADO Y FORMACIÓN  
CONTINUA

## INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

---

**SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA:** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola

**HELBIDEA:** Nieves Cano Kalea 12. 01006 Vitoria-Gasteiz

**TELEFONOA:** 945014082

**POSTA ELEKTRONIKOA:** [rosamaria.rio@ehu.eus](mailto:rosamaria.rio@ehu.eus)

(\*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.